



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: 2023IAPL0007

## 2023KO EKAINAREN 17AN EGINDAKO UDALBATZAREN ERAKETA BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

#### Zinegotziak

Jon Mikel Azpiazu Zubeldia  
Ainhoa Arrozpide Landa  
Xabat Beloki Segurola  
Iratxe Begiristain Otegi  
Xabier Aranburu Leiva  
Jose Maria Lizaso Azconobieta  
Oskar Santamaria Picabea  
Maialen Iñarra Arregi  
Xabier Otxoa Muñoz  
Ivan Iriondo Axpe  
Petra Romero Pozo

**Idazkaria:** Ibon Goikoetxea Retegi (Kontuan izanda 2023ko ekainaren 9ko 2023/1110 Foru Aginduak Usurbilgo Udaleko Idazkaritza funtzioak betetzeko egindako izendapen akzidentala)

Ez da bertaratu: Josune Urkola Larrarte.

Eguerdiko 12:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2023ko ekainaren 17an, eguerdiko 12:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udala eratzeko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

### 1.- KORPORAZIO BERRIAREN ERAKETA.

Idazkariak saioaren hasiera deklaratu eta Hauteskunde Legearen 195 artikulua eraketaren ordenaren inguruan arautzen duena irakurri du.

Artikuluak hau dio:

“1. Udalbatzak saio publikoan eratuko dira, hauteskundeak izan eta hogeigarren egunean, baldin eta aurkeztu ez bada hauteskundeekiko auzi errekurtsorik, hautatutako zinegotziak izendatzearen kontra. Aldiz, errekurtsoren bat aurkeztu bada, hauteskundeak egin eta berrogeigarren egunean eratuko da Udalbatza.



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: 2023IAPL0007

2. Horretarako, Adin Mahaia eratuko da honako kide hauekin: ekitaldian agertutako hautetsi zaharrena eta gazteena. Mahaiko idazkari bezala Udalbatzaren idazkariak berak jardungo du.

3. Mahaiak egiaztatu egingo ditu aurkeztutako kredentzialak edo hautetsien nortasunaren akreditazioak, Eskualdeko Hauteskunde-Batzordeak Udalera bidalitako ziurtapenen arabera.

4. Aurreko operazioa eginda, Mahaiak eratutzat jo du Udalbatza, baldin eta zinegotzi hautetsien gehiengo absolutua badago. Aipatu gehiengorik ez badago, bi egun beranduago bilkura egingo da, eta han eratuta geratuko da Udalbatza, edozein dela ere bertaratutako zinegotzien kopurua.”

Argibideen ostean, eraketari ekin diote.

Kasu honetan, adin-mahaia honela osatu da:

Zinegotzi adinekoena: Jose Maria Lizaso Azconobieta.

Zinegotzi gazteena: Xabat Beloki Segurola.

Idazkaria: Ibon Goikoetxea Retegi.

Jarraian, idazkariak Udalean jaso diren hamahiru kredentzialak irakurri ditu.

Hamahiru zinegotzietatik hamabi bertaratu direnez, Udalbatzarraren gehiengo absolutua osatzen dutenak baina gehiago, zinpeko aitordenari ekin zaio.

Idazkariak, zinpeko aitordenari buruz adierazi du legeak diola Konstituzioari zin egin behar zaiola eta ezinbesteko baldintza dela kargua hartzeko, hori egin ezean ezingo lukeela kargua hartu eta alkatearen hautapenean parte hartu ere ez.

Idazkariak zinegotzi bakoitza izendatu du eta hauek zin egin dute, hurrenkera honetan:

Aranburu Leiva, Xabier: “Legeak hala behartuta zin dagit”.

Arrozpide Landa, Ainhoa: “Legeak hala behartuta hitza ematen dut, gobernantza demokratikoa sakontzen lan egingo dut”.

Azpiazu Zubeldia, Jon Mikel: “Legeak hala behartuta zin egiten dut”.

Begiristain Otegi, Iratxe: “Legeak hala behartuta zin dagit”.

Beloki Segurola, Xabat: “Legeak hala behartuta hitz ematen dut”.

Iñarra Arregi, Maialen: “Legeak hala behartuta zin egiten dut”.

Iriondo Axpe, Ivan: “Legeak hala behartuta zin dagit”.



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: 2023IAPL0007

Lizaso Azconobieta, Jose Maria: "Legeak hala behartuta hitza ematen dut".

Romero Pozo, Petra: "Bai, hitza ematen dut".

Santamaria Picabea, Oskar: "Legeak hala behartuta hitza ematen dut".

Solaberrieta Mesa, Agurtzane: "Legeak hala aginduta zin egiten dut Usurbil hobeago baten alde eta euskal errepublikaren alde arituko naizela".

Otxoa Muñoz, Xabier: "Legeak hala behartua hitza ematen dut".

Idazkariak jakinarazi du Josune Urkola Larrarte gaur ez dela bertaratu eta bere kargu hartzea hurrengo plenoan egingo dela.

Adin-mahaiaren lehendakariak Udala eratutzat eman du hitz hauekin: "Udala eratuta dago".

Udala eratu ondoren, alkatearen hautaketari ekin zaio.

## **2.- ALKATEAREN HAUTAKETA ETA JABETZA HARTZEA.**

Idazkariak Hauteskunde Legearen 196 artikulua irakurri du, alkatearen hautaketari dagokiona. Honela dio:

"Udalbatzaren eraketa bilkura berean, alkatea hautatzeari ekingo zaio, hurrengo prozedura honi jarraituz:

- a. Zerrenda-buru diren zinegotzi guztiak izan daitezke izangai.
- b. Haietakoren batek zinegotzien botoen gehiengo absolutua lortzen badu, hautetsi izendatuko da.
- c. Inork ez badu gehiengo absolutua lortzen, alkatea izendatuko da, udalerrian herritarren botoen kopuru handiena lortu duen zerrendako burua den zinegotzia. Berdinketa gertatuz gero, zozketa eginez ebatziko da."

Idazkariak plenoan aurkitzen diren hiru izangaiak aipatu ditu:

Agurtzane Solaberrieta Mesa (EH Bilduko zerrendaburua)  
Xabier Otxoa Muñoz (EAJ/PNVko zerrendaburua)  
Petra Romero Pozo (PSE-EEko zerrendaburua)

Xabier Otxoa Muñozek adierazi du beraiek ez dutela hautagaitzarik aurkeztuko.



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: 2023IAPL0007

Petra Romero Pozok adierazi du beraiek ere ez dutela hautagaitzarik aurkeztuko.

Bozketa sistemari dagokionez, idazkariak adierazi du bozketa ahoz egitea planteatzen dela, zinegotzien izenak alfabetikoki ordenatuta esanda.

Jarraian, idazkariak zinegotzien izenak esan ditu eta bakoitzak bere botoa eman du.

Aranburu Leiva, Xabier: "Agurtzane Solaberrieta Mesa".

Arrozpide Landa, Ainhoa: "Agurtzane Solaberrieta Mesa".

Azpiazu Zubeldia, Jon Mikel: "Agurtzane Solaberrieta Mesa".

Begiristain Otegi, Iratxe: "Agurtzane Solaberrieta Mesa".

Beloki Segurola, Xabat: "Agurtzane Solaberrieta Mesa".

Iñarra Arregi, Maialen: "Agurtzane Solaberrieta Mesa".

Iriondo Axpe, Ivan: "Abstentzioa".

Lizaso Azconobieta, Jose Maria: "Agurtzane Solaberrieta Mesa".

Romero Pozo, Petra: "Abstentzioa".

Santamaria Picabea, Oskar: "Agurtzane Solaberrieta Mesa".

Solaberrieta Mesa, Agurtzane: "Agurtzane Solaberrieta Mesa".

Otxoa Muñoz, Xabier: "Abstentzioa".

Jarraian, idazkariak emaitzak irakurri ditu.

Emandako bozka kopurua: 12

Baliodun botoak: 12

Zuriak: 3

Agurtzane Solaberrieta Mesa: 9 boto

Emaitzak kontuan hartuta, mahaiko idazkariak adierazi du Usurbilgo alkatea 9 botorekin Agurtzane Solaberrieta Mesa aldarrikatzen dela.

Idazkariak adierazi du alkateak kargua hartzeko, indarrean dagoen legeak Konstituzioari zin egin behar zaiola esaten duela eta ezinbesteko baldintza dela kargua hartu ahal izateko.



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: 2023IAPL0007

Hori horrela, Agurtzane Solaberrietak adierazi du: “Legeak hala aginduta zin egiten dut herritik eta herriarentzat arituko naizela”.

Jose Maria Lizaso Azkonobietak adierazi du pozez eta ohorez karguaren ikurra pasatzen diola Agurtzane Solaberrieta Mesa alkate berriari.

Txaloak izan dira.

Agurtzane Solaberrietak, alkate kargua hartu berritan, EAJ/PNV eta PSE-Eeko zerrendaburuei galdetu die ea hitza hartu nahi duten eta hauek ezezkoa eman ondoren, hitz hauek esan ditu:

“Eguerdi on!

Ezer baino lehen, bihotz-bihotzez, eskerrak eman nahi dizkizuet berriro ere gudan konfiantza jarri duzuen herritarroi. Babes handia jaso dugu, 1.771 boto eskuratu ditugu, duela lau urteko emaitza nabarmen hobetuz, eta hautetsontzietara hurbildu direnen artean %61ak guk eskaini dugun proiektua aukeratu izana guretzat oso garrantzitsua da. Bada azken urte hauetan egindako kudeaketaren eta lanaren aitortza, eta herritarren aldetik halako babes jasotzea gauza ederra da, zinez, eta oso-oso eskertuta gaude. Hunkituta. Legealdi berriari ilusioz, gogoz, indarrez ekiteko prest ginela esan genuen hauteskundeetan, eta lanez itzuliko dugu jaso dugun babes guztia. Herritarrek dagoeneko badakite zertarako gai garen eta, batez ere, badakite emateko zenbat dugun. Asko egin dugulako elkarrekin, baina are gehiago dugu oraindik emateko. Ez dakigu bestela egiten; umiltasunez eta inolako harrokeriarik gabe jardungo dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiet, era berean, udal hauteskundeetan aurkeztu diren beste alderdi politikoekin alde egin duten herritarrei ere, eta, oro har, modu batera edo bestera, botoa ematera hurbildu zirenei. Izan ere, alderdiek lortutako emaitzak gorabehera, abstentzioaren gorakadak eguna zertxobait ilundu zidan. Duela lau urtekoarekin alderatuz, 5,5 egin zuen behera parte-hartzeak, eta 1.928 herrikidek erabaki dute bozkarik ez ematea. Horrek autokritika eskatzen digu, izan ere, bada, nire irudiko, porrot kolektibo baten ondorioa, eta instituziogintzan ari garenontzat zer pentsatua eman beharko liguke.

Eskerrik asko ere gaur etorri zaretenoi, inguruan ditugun familiakoei eta lagunei, zuen babes, laguntza eta konplizitate gabe nekez egongo ginateke gu denok hemen eserita.

Eta, nola ez, zorionak hemen zaudeten zinegotzi guztiei, herriak aukeratuak izatea handia baita, eta eskerrik asko hartutako konpromisoagatik.

Niretzako izugarrizko ohorea izan zen duela lau urte Xabier Arregiren eskutik jasotzea aginte-zumea, karisma eta gaitasun handiko alkatea izan zelako, eta pertsona gisa,



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: 2023IAPL0007

estimua handia diodalako. Baina aurtengoa ere berezia izan da; adin mahaiko kideen eskutik jaso dut zumea, Joxe Mariren eskutik.

Udalbatza berria osatu dugu: ez gara asko aurreko legealditik jarraitu dugun hautetsiok, hamahirutik lauk, eta udalbatza honek ezer islatzen badu gaztetasuna da. Zinegotzi zaharrena Joxe Mari dugu, 62 urterekin. Gazte oraindik, beraz! Erretiroa hartu berritan, erritaratzeko asmorik ez, eta gogo biziz dator, gainera. Bejondeizula, eta mila esker!

Egungo gizartean bada joera gazteak kritikatzeko. Askok hitz egiten da gazteen inguruan, baina gutxi gazteekin. Kolektibo honen inguruko topikoak erruz eta erraz zabaltzen dira: gaur egungo gazteak egoistak direla, soilik euren zilborrera begiratzen dutela, ez direla solidarioak, dena eginda dutela, politikarekiko interesik ez dutela... Labur esanda, denaz paso egiten dutela. Bada, ez!

Bistan da, gaztedia ez dela talde homogeen bat, helduok ez garen bezala. Gazte izateko modua asko daude, baldintzen arabera, jatorriaren arabera, hezkuntzaren arabera, baita Usurbilen ere; baina bada Usurbilgo gazteria definitzen duen ezaugarri bat: konpromisoa, herrigintzarako ilusioa eta aktibismoa. Eta konpromiso hori udalbatza honetan dago islatuta, eta poz handia ematen du herrian hainbeste gazte etorkizuneko erronkei aurre egiteko proposamenak pasioz lantzen ikusteak, izan udaletik, izan herrigintzatik, izan gazte mugimendutik. Eta Usurbilgo herritarrek ere hala sentitzen dutela esango nuke, eta, horrenbestez, ondo merezita duzue aurtengo Santixabeletako txupinazioa botatzeko ohorea izatea. Aupa zuek!

Gaztetasuna, izan bedi politikagintzara eta instituziogintzara aire freskoa eta begirada berriak ekartzeko bide. Izan ere, azken egunotan ikusten eta bizitzen ari gara politikaren aurpegiak makurrena da: aulki jokoa, betoak, bazterketak eta herritarren nahiari bizkar ematea. Ez dirudi antidoto egokia denik abstentzioari aurre egiteko.

Lubakien garaia atzean utzi, eta zubiak eraikitzeke unea da. Gu hor gaude; eta hor aurkituko gaituzue, beti, herriaren interesak gidatuta.

Ikusten duzue, Usurbilen ez dugu aginte makilarik. Gure aginte-ikurra zumezko uztai da, uztai gisan bildutako zume luzexka bat muturrak metalez babestuak dituen. Aginte zume hau zumea da; malgua baina ez hauskorra; borobila eta ez goitik beherakoa.

Nire ustez, zumezko uztai honek erakusten du agintea nolakoa izan behar duen: apala eta malgua, moldagarria, inguruaren beharretara eta garai berrietara moldatzen dakiena, baina, aldi berean, sendoa eta tinkoa.

Zume hau zuena ere bada, udalbatza osatzen dugun guztiona. Herritarrek eman diguten ardura, ardura konpartitua baita, eta aginte eta lidergo konpartituak behar ditugu, are, egungo gizarteak dituen erronka konplexuei erantzungo badiegu.



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: 2023IAPL0007

Askotan aipatzen dut, hamarraldi erabakigarrian gaudela gizateriaren historiari dagokionez, eta prospektibaren arabera, honako joera hauek larriagotu egingo direla datozen urteotan: krisi ekosoziala eta krisi energetikoa, migrazioen areagotzea, populazioaren zahartzea, gizarte dualizazioa, globalizazio digitala edota landa eremuaren despopulazioa. Horregatik, inportantea da hurrengo urteetarako espero den fenomeno globalen larriagotzearen aurrean, epe ertainean erresilientzia irabazteko bideak gaurdanik bilatzea. Une batez begirada altxatu, datorren munduaz jabetu eta geure buruak garai historiko honi aurre egiteko prestatzea.

Horretan ari gara, hain justu, azken urteotan Usurbilen, erronka handiei tokikotik erantzuten, hori aurre egiteko proiektu eraldatzaile eta aitzindariak diseinatzen eta martxan jartzen, esate baterako, trantsizio energetikoaren alorrean, pertsonaren nahiak erdigunean dituen zaintza eredu eta ekosistema berri bat eraikitzen, zahartzaroari komunitatetik erantzuteko proiektuak sortzen, Txirikorda esate baterako, zaintzen dutenen zaintza eta profesionalizazioa bermatzen, euskara eta kultura tokiko ekonomiaren motor bihurtu dadin turismo eskaintza berritzaileak martxan jartzen edota kultura komunitatea hauspotzen, aniztasunari euskaratik eta berdintasunetik erantzuten eta arrakala sozialak eragozteko neurriak hartzen, pertsonen eta ingurumenaren neurriak egindako herri eta hirigintza ereduak onutzen, eta abar luze bat.

Garai historiko honi aurre egiteko, eta erronka konplexu hauei erantzuteko, ez digute iraganeko errezetek balio, ez digu politika konbentzionalak balio. Izan ere, hori dena ez badugu herritarrekin batera egiten, porrotera kondenatuak gaude.

Pepe Mujika handiari irakurri berri diot “en política uno de los errores más frecuentes es no reconocer las realidades. A veces, en la izquierda, se confunde sentimiento con realidad. Los gobiernos creen que tienen el poder, pero si no construyes colectivos que peleen en un sentido, esto no cambia. Pensadores han sobrado, falta la fila india. La causa tiene que tener masa”.

Usurbilek badu eskarmentua gauzak beste modu batean egite horretan. Garrantzia eta arreta berezia jartzen diogulako egin nahi den horri eta egin nahi den moduari, nolakotasunari. Oso gure DNAn dagoena: herritarrekin politika publikoak pentsatu eta erabakitzeko espazio ugari ditugu, eta ikusi dugu, gainera, gobernatzeko modu horrek efektu biderkatzailea duela, batetik, politika publikoak eraginkorragoak direlako, eta, bestetik, guztion ekarpenari esker, herri hobeagoa garelako, herri kohesionatuagoa garelako.

Horregatik, hurrengo legegaldian horretan guztian sakontzera goaz. Beharrezko deritzogu, udalaren barne funtzionamendu berri batekin batera, gizarte erronken baitako udal antolaketa eta horiei elkarlan publiko-komunitariotik erantzutea ahalbidetuko duen lankidetzazko gobernantza gorpuztea.

Horrek etengabe aliantzak eraikiz lan egiteko eskatuko digu, elkarri aurpegira begiraturaz, hitz eginez, batzuetan kontraesanetan eta beste batzuetan gatazkan, baina,



Usurbilgo Udala

Esp.zk.: 2023IAPL0007

beti komunitatetik eta inor bazterrean edo atzean utzi gabe, eta ahal dela barre eginez eta maitasunez.

Ez datozkigu garai errazak. Ziurgabetasun handiko garaiak bizi ditugu, eta garai hauetan, eskuinak eta eskuin muturrak gora egin ohi dute. Munduari begiratu besterik ez dugu, eta ez oso urrutira, gainera. Ikuskizun zer gertatuko den uztailaren 23an Espainian. Ez dagoela zer eginik sinestarazi nahi digute. Berriro ere Pepe Mujikaren hitz batzuk ekarri nahi ditut: “ Los únicos derrotados son los que bajan los brazos. Los luchadores sociales siempre soñamos con un cambio de poder, y muchas veces terminamos llevando flores al cementerio de las utopías, pero tenemos que vernos como sembradores, como participantes de una carrera infinita para mejorar la civilización humana. Pelear por los demás es pelear por lo mejor que tenemos dentro. La esperanza es caminar, y el guerrillero que no camina está frito. Me duelen los huesos, pero todavía voy andando”.

Gogoeta hori irakurtzean, Gariren abesti hau datorkit: “Esperantzara kondenatuak gaude”. Horregatik, guk ere oinez jarraituko dugu, hezurretako minez bada ere, batzuetan kaletik, orain udaletik, sinistuta gaudelako beste mundu bat posible ez ezik behar-beharrezkoa dugula, jendeak bizitza bizigarriak izateko eta zoriontsuak izateko eskubidea duela, eta ez dugu etsiko Euskal Herri aske, euskaldun, feminista eta ezkerrekoa lortu arte!

Gora herria!  
Gora Usurbil!  
Gora Euskal Herria!”

Txaloak izan dira.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du eguerdiko 12:32etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**

8/8



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU298d3955-0233-4e59-bcda-4e5340a7c995**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2023IAPL0007-Akta 2023-06-17/Acta 17-06-2023 (USURBILGO UDALA)